



EUSKARA PIZTEKO EGUNA

Araba Euskaraz ospatuko da igandean Gasteizen

"Francok Gasteizko euskal eskola hondatu zuen"

Peli Fdz. Romarategi

ARABAUTO, ZURE RENAULT-DACIA ETA NISSAN KONTZESIONARIO BERRIA GASTEIZEN

- Renault, Dacia eta Nissan ibilgailu berriak.
- Erabilitako ibilgailuen stock zabala.
- Eta **saldu osteko zerbitzurik** osoena: mekanika, karrozeria eta pintura tailerra; dena, teknologia berrienarekin, eta etengabe formatzen ari diren profesional gaituekin.



ARABAUTO

PORTAL DE GAMARRA 46, AB. 01013. TEL. 945 26 92 73. VITORIA-GASTEIZ



Alea

20. zk.

Azaleko argazkia:
Itsaso Estarrona



4



10



14



23

- 4 Igandean, ikastolen festa Prado eta Armentia artean.
- 10 Peli Fdz. Romarategi: "Posta kalean zegoen lehen ikastola".
- 12 Iritzia: Itziar Rekalde, Oihan Txabarri, Itsasegia.

ARABAKO KUADRILLAK

- 14 Gasteiz: Zero Zabor elkarteari elkarrizketa.
- 16 Aiara: Gernika filma grabatzen hasi dira Artziniegan.
- 17 Gorbeialdea: 'Euskaraz bizi nahi dugu' eguna Landan.
- 18 Lautada: udaleku eskaintza zabala Kuadrillako haurrentzat.
- 19 Añana: Gazteluen eguna, larunbatean Zanbranan.
- 20 Mendialdea: askotariko kirol probak eskualdean.
- 21 Trebiñu: Argantzungo argazki zaharrak ikusgai.
- 23 Arabako Errioxa: En Tol Sarmientoren disko berria labean.

HAMAICA SALTSA

- 24 Gasteizko AEKren euskaltegirik zaharrenak, 25 urte.
- 27 Zozketak.
- 28 Zorion mezuak eta agurrak.
- 29 Denbora-pasak.
- 30 Agenda.



Argitaratzailea
Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.

Zuzendaria
Aritz Martínez de Luna Urzelai

Erredakzioa
Anakoz Amenabar
Itsaso Estarrona Elizondo
Mirian Biteri

Komertziala
Erlantz Anda

Denbora pasak
Bagabiga

Inprenta
Bidasoa inprimatzeko zentroa

Banaketa
Bidera zerbitzuak

EGOITZA NAGUSIA
Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.
Eskola kalea, 10, 13. bulegoa,
01001, Vitoria-Gasteiz, Araba
Tel.: 945 71 60 09
625 23 16 03
info@alea.eus

Erredakzioa
erredakzioa@alea.eus

Harpidetza
harpidetza@alea.eus

Publizitatea
publizitatea@alea.eus

Lege Gordailua: VI-32-2015
ISSN: 2386-8961

Tirada: 5.000 ale

Bultzatzaileak:



goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

berria

Laguntzailea:



JASO ZUK ERE ALEA!

ALEA aldizkaria ostiralero zure postontzian jaso nahi duzu?

Egin zaitez harpidedun, eta 50 euroren truke, urtean 44 ale jasoko dituzu.

www.alea.eus

945 71 60 09

harpidetza@alea.eus

ALEA ez du bere gain hartzen IRITZIA sailean, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Euskara izpiak

'Pitzu euskara' lelopean, Araba Euskaraz jaia ospatuko da igande honetan Gasteizen, Oiongo San Bizente ikastolak antolatuta. Egun bat, itzalei aurre egin eta euskarari argia ematen jarraitzeko. **ITSASO ESTARRONA** GASTEIZ-OION

Zerbaitengatik aukeratu dute bonbilla bat aurtengo logoa janzteko: euskararen argia pizterakoan, ordurarte itzalpean zegoena ikusi deza keelako begiradak. Mezu hori zabalduko du Oiongo San Bizente ikastolak, *Pitzu euskara* lelopean iganderako Gasteizen antolatu duen Araba Euskaraz festan.

Pasa den urtean Lapuebla de Labarcan ospatu eta gero, hiriburura mugitu dute aurten ikastolen jaia, berriro ere Arabako Errioxan ez egitearren, eta haraino gerturatu ohi dena baino jende gehiago erakartzeko asmoz. Hortaz, Pradotik Armentiarara bitarteko pasealekuaren inguruak piztuko ditu euskararen txinpartak ekainaren 14an, bederatzi urtez hiria zapaldu gabe igaro eta gero.

35. edizio honetan lortutako diruarekin, Oiongo ikastolako infor-

matika gela hobetu eta eraikinaren leihoak berritu nahi dituzte; horrez gain, jantokiko erreforma ere bukatu nahi dute, arazo ekonomikoengatik amaitu gabe daukaten obra delako.

Ahalik eta euskaltzale gehien erakartzeko asmoz, askotariko eskaintza prestatu dute 10.00etatik 19.30ak bitartean, lau gunetan antolatuta: Prado parkea, Mendizorrotzako atletismo pistak, Mine-rala iturriaren ingurua eta Armentiako zelaia.

Erronka: gazteak

Euskara normalizatzeko bidean gazteak erronka direlako, gazteen Erronka izango da aurtengo nobe-

dadea; alegia, 13 eta 16 urte bitarteko ikasleek taldeka gainditu behar duten proba sorta, besteak beste orientazio jolasa, gurutzegrama eta mahats zapalketa.

Cervantes pasealekuan hasi eta Prudentzio etorbideraino igoko den ibilbidean, beste hainbat pizgarri ere egongo dira, hala nola haur

ikuskizunak, pilota neurketak, eskal produktuak, artisauek eta kontzertuak, tartean Arabako Errioxako En Tol Sarmientoren emandaldia, haiek egin

baitute aurtengo doinua, zirkuito osoan zehar milaka euskaltzaleren ahotan kanta-marmarrean ibiliko dena: "Ikastolatik kalera, bihotzetik mingainera, hauspoari eraginda, piztuko dugu euskara".

10.00etan irekiko da ibilbidea, Pradotik Armentiarara, lau guneren inguruan antolatuta



Lapuebla de Labarcan ospatu zen iazko Araba Euskaraz festa Assa ikastolaren eskutik, *Mugan, bizi, bizi* lelopean. | HIRINET



	1. GUNEA PRADO	2. GUNEA MENDIZORROTZA	3. GUNEA MINERAL	4. GUNEA ARMENTIA			
10:00	Gunearen irekiera	Hasiera ekitaldia, zinta mozketa eta zirkuituaren irekiera	Erronka: Aurkezpena	Artisauen postuen irekiera	10:00		
10:30	Haur ikuskizuna	Arabako Herriarteko pilota txapelketaren finala	Ludoteka	Esperimentuaren txokoa Elhuyarren eskutik	10:30		
11:00			Eusko Label produktuak		11:00		
11:30			Gaiteroak	Zunba	11:30		
12:00	Irri Herri Anitz		Bertsolariak	Pablo Dj	12:00		
12:30							12:30
13:00							13:00
13:30	Ginkana	Guri 5	Abesbatza	Perlak	13:30		
11:00						11:00	
11:30				Erronka: Finala		11:30	
15:00	Herri Bazkaria	E.T.S.		Begiz Begi	15:00		
15:30						15:30	
16:00				Esne Beltza		16:00	
16:30	Ane eta Piratekin Parrandan !	Xaiko		3Gabe2 (dantza plaza)	16:30		
16:30						16:30	
17:00						17:00	
17:30				Oihan Vega	17:30		
18:00					18:00		

→ Egunean zehar: kale animazioa, puzgarriak eta ludoteka, frontoi portatila eta euskal pilota jokamoldeak.

→ Egunean zehar: golf federazioaren txokoa

→ Egunean zehar: puzgarriak, Junpy-a, 5+11 fundazioa...



Juan Jose Redondo, ikastolako sortzaileetako bat, Txaro Zabala, langilea eta Ivan Santamaria eta Arantxa sobrino, irakasleak. | I. ESTARRONA

Herritarrak, pizgailu

Hezkuntza zentro bat baino gehiago da Oiongo San Bizente ikastola. Bertan, Arabako Errioxan euskararen argia pizten duten herritar ekimen ugari jaio dira, tartean bertso eskola, abesbatza eta gazteen elkarteak. **ITSASO ESTARRONA** GASTEIZ

Irribarretik negar tanta dariola kontatzen du, bere alabak hiruzpalau urte zituenean Oionera Tolosako Gregorio koinatua joan zenekoa. Nonbait, osabari euskaraz egiten entzun zion umeak, eta hala hasi zitzaion txikitxoia tolosarrari ere, euskaraz. Malko betean hasi zen gipuzkoarra, Arabako azken puntako haurra euskaraz entzutean. Ordutik hogeita hamar urte baino gehiago pasa dira, eta hunkituta gogoratzen du pasadizoa Juan Jose Redondo Moñua oiondarrak, San Bizente ikastolako guraso sortzaileetako bat. Bere ondoan eserita daude, Arabako **ALEA**rekin hitzorduan, Arantxa Sobrino eta Txaro Zabala, bi-biak ikastolako langile eta, eskolako hormaz harago ere, aurtan Araba Euskaraz festak omendu dituen bi ekimen euskaltzaleetako kide: Txandrio bertso eskola eta Egunsentia abesbatza, hain zuzen. Haiak ere hunkitzen dira, "hain da

handia Oionen euskara berreskuratzeke egin den, eta egiten den, ahalegina".

"Zero patatero". Halaxe laburbildu du Juanjok frankismoaren azken arnasean euskarak Arabako Errioxan bizi zuen egoera. Errealitate hori hankaz gora jartzeko, zortzi guraso bildu ziren. Lehenengo urratsa ikastola sortzeko tokia lortzea izan zen. Biltegi moduan erabiltzen zuen eskola zaharra eskatu zioten Udalari, eta igeltsero eta arotz lanetan aritu ziren gurasoak.

Jose Mari Rekarte aguraindar euskaltzale amorratuaren laguntzarekin, gero eta ikasle gehiago batu zituzten proiektura, apaizari bataioen zerrenda eskatu eta fami-

liaz familia joaten baitzen hezkuntza egitasmo euskaltzalearen berri ematera. Behin lekua lortu eta ikasle gero eta gehiago erakarrita, bertako irakasleak lortzea izan zen hurrengo erronketako bat. Kanpo-

tik iristen ziren Oionera maisu asko, eta "bere herrian lanpostu bat lortu bezain laster, hara itzultzen ziren"; hortaz, ahalegin handia egin zuten gura-

soek Arabako Errioxako irakasle gazteek euskara ikasi eta ikastolan lan egin zezaten, bai eta kanpotik iritsitakoek Oionen erroak bota zituzten ere.

Gasteiztik lurreratutako irakasle horietako bat izan zen Arantxa Sobrino Lasa filologoa 87. urtean: "Oionen bizi behar ginela esaten

Oiongoa eta gero, Arabako Errioxan beste hiru ikastola sortu zituzten: Lapueblan, Bastidan eta Lantziegon



I.E.

"Arabako Errioxako irakasle euskaldunak lortzea izan zen gure erronka nagusietako bat"

J. JOSE REDONDO IKASTOLAREN SORTZAILE

ziguten gurasoek, eta halaxe egin genuen gutako batzuk, baina Oion herri pixkat aspergarria da, batez ere neguan..." eta, hortaz, hotz sasoi-ko geldotasunari aurre egiteko eta euskaltasuna zabaltzeko, Txandrio bertso eskola sortu zuten.

Arabako Errioxan ere, bertsoan

Berta-bertakoa da Txandrio hitza, euskarazko sustraiak ei dituenak, "etxe" eta "andre" izenak oinarri. Asmo txarrik gabe egindako lardaskeriak izendatzeko erabiltzen



I.E.

"Gaur egun, bertso txapelketetan Arabako Errioxako ordezkariak ere parte hartzen dute"

ARANTXA SOBRINO TXANDRIO BERTSO ESKOLA

250

IKASLE

Logroñotik ere ikasleak joaten dira Oionera, "hezkuntza eredu aurrerakoiago baten bila". Ikasle etorkin gutxi dituzte, eta horiek erakartzeko "laguntza gehiago" behar direla azpimarratu dute.



I.E.

"Oionen kantatu ohi diren 'aurorak' euskaraz abesteko, Egunsentia taldea sortu genuen"

TXARO ZABALA EGUNSENTIA ABESBATZA

dute Arabako hegoaldean eta Nafarroako hainbat txokotan.

"Euskal jatorrizko hemengo hitza zelako eta hastapenetan *txapuzatxoak* egiten genituelako aukeratu genuen izena", dio Arantxak. Hasieran, baina, "izenik eta norabide argirik gabe" biltzen hasi ziren irakasle bertsozale batzuk, astean behin idatzizko bertsoak egiteko, Oionen Arabako bertsolari txapelketako kanporaketa bat ospatu zen arte: "Bertan, bertsoan ikasteko prest zeudenen kontaktuak bildu, eta bertso eskola martxan jarri genuen". Arabako bertsozale elkar-tea Gasteizko irakasle bat bidaltzen hasi zitzairen, eta zortzi hilabete eskaseta lehenengo txapelketa prestatu zuten, lurraldeko kuadrillarteko lehia Arabako Errioxa ere ordezkatzuta egon zedin.

Gaur egun, bertso saioetara jende gutxi gerturatzen denez, "bertso-poteoan masterra" egiten ari dira, eta Lantziegon, Villabuenan, Lapueblan eta Bastidako herrietan ibiltzen dira koplaka, Oion eta Vianako trikitilariekin batera noizean behin. Gazteak erakartzea da haien erronka nagusietako bat, "beldurra ken-

Confecciones Pinedo, S.L.

Euskal Jantziak

San Antonio, 11
Heraclio Fournier, 15
GASTEIZ



www.confecconespinedo.com



I. ESTARRONA

"Euskal kultura sustatzeko, besteak beste euskal selekzioa ikustera eta sagardotegira joaten gara"

IVAN SANTAMARIA OIONGO GAZTEAK

Beste hiru omendu

Txandrio bertso eskola, Egunsentia abesbatza eta Oiongo gazteak elkarteaz gain, beste hiru ekimen omendu nahi izan ditu aurten Araba Euskaraz jaiak: Ttiki Ttaka euskara elkarte, Irule kultur elkarte eta IKA euskaltegia.

du eta hizkuntza jolasteko erabili dezaten".

'Auroratik', egunsentira

Bertso eskola ez da ikastolatik sortu den mugimendu euskaltzale bakarra. San Prudentzio Egunsentia abesbatza beste adibide bat da, Txaro Zabala Azkarate oiondarrak azaldu duenez. Sortu zenetik dabil bera eskolan lanean. Logroñon administraritza ikasketak egin eta gero, 32 urterekin euskara ikasi eta bulego lanetan hasi zen San Bizenten.

Oionen, dio, "aurora" kantatzen da hainbat ospakizunetan: Errege Magoen egunean, San Bizente eta San Anastasio jaietan eta San Prudentzian. Bada: duela hogeit urte, Arabako zaindariaren egunean "aurora" horiek "egunsenti" bilakatu eta euskaraz kantatzeko, San Prudentzio Egunsentia taldea sortu zuten Txarok eta ikastolako beste hainbat kidek, Paco Ibañez musikari oiondar gasteizartuaren laguntzarekin. Ondoren hartu zuen taldeak abesbatza forma, eta gaur egun 24

pertsonek osatzen dute, ikastolakoekin zein ikastolatik kanpokoekin. Gainerako hizkuntzetan ere kantatzen dute, baina euskara eta euskal kultura dituzte beti haizeorratz.

Gazteen txanda

Arabako belaunaldi berriek badute zeresana euskararen zabalkuntzan, eta helburu hori bere egin du 1980. urtean sortutako Oiongo gazteak aisialdi elkarteak. Xede horrekin, sagardotegira irteerak eta euskal selekzioa ikusteko txangoak antolatzen dituzte, adibidez. Ikastolako irakasle eta elkarteako kide Ivan Santamariak dioenez, "taldean badaude euskaraz egin ezin daitezkeen gauzak, Logroñon ikasi duten gazteak daudelako tartean, esaterako; baina, hala ere, ahal dugun neurrian euskararen alde lan egiten dugu".

Juanjok, Arantxak, Txarok eta Ivanek, denek argi dute umeak hezitzeaz gain, Arabako Errioxan euskara zabaltzeaz arduratu dela ikastola, eta harro daude, baina "nekeza" ere badela ohartarazi dute, oraindik urtero oztopoak aurkitzen dituztelako Udalean eta Foru Aldundian, Txarok azpimarratu duenez: "Zer da honezkero frogatu behar duguna? Ez dute ulertzen Oion ez dela Gasteiz, Bilbo edo Donostia? Hemen laguntza gehiago behar dugula, ahalegin bikoitza egin behar dugulako".

Gasteiz Euskaraz





Oiongo San Bizente ikastolako ikasleak, eskulanak egiten; haien eskutik ere, euskara da jaso dezakegun albisterik onena. | LAURA SAENZ MUÑO

Su txikien itsasoa

Arabako Errioxan euskara ilunpean zegoen garaian, txinparta piztu zuten Oiongo zortzi gurasok. Gaur egun, 250 su txiki daude herriko ikastolan **I. ESTARRONA** GASTEIZ

Eduardo Galeano idazle urugaiarrak kontatu zuen, munduan badaudela su handiak eta su txikiak; badaudela ez piztu ez erre egiten ez duten suak, baina badaudela ere bizitza gogo handiz erretzen dutenak; hain gogotsu, ezen ezin baitzaie begiak kliskatu gabe begiratu, eta, gerturatzen zaiena, erretzen da. Halako zortzi su txiki bildu ziren Oionen, 70. hamarkadaren amaieran.

Guraso-kooperatiba sortu zuten 1978an bere seme-alabek euskaraz

ikasi ahal zezaten, Aguraingo Jose Mari Rekarte euskaltzalearen laguntzarekin. Berak eskatzen zion herriko apaizari urteko bataioen zerrenda, ondoren familiekin harremanetan jarri eta San Bizente ikastola ikaslez betetzen joan ahal izateko.

Gogorrek izan ziren hastapenak,

euskara erabat galduta zegoen eskualdean. Lehenengo andereñoaren soldata ordaintzeko, familiekin jarri behar izan zuten dirua. Udalarari biltegi bezala erabiltzen zuen eskola zaharreko gela bat eskatu, eta hantxe hasi ziren lehen zortzi umeak ikasten, eraikin berean kokatuta zegoen auzitegiko epailearekin komuna elkarbanatuz.

Biltegi bezala erabiltzen zen eskola zaharrean hasi ziren lehen umeak, epailearekin komuna elkarbanatuz

Lau Araba Euskaraz -aurretengo, bosgarrena-, 37 urte eta lan handia egin ondoren, su txiki sakanbanatu horietatik su txikien itsaso zabala jaio da: 35 langilek, 160 familiak osatutako guraso-kooperatibak eta 250 ikaslek pizten dute egunero sugarra.

ARABA EUSKARAZ-ERA IPAR MOTOR-REKO KOTXE BATEKIN

ARABA EUSKARAZ

IPAR MOTOR



TAILER ETA SALMENTA



Renault Clio 2008 1.2 gasolina 84.000 km

7.500 EURO

"Kartzelan ikasi nuen euskaraz, irakasle onenarekin"

ANAKOZ AMENABAR GASTEIZ



A. AMENABAR

Loma Jeneralaren plazan dagoen apaiz egoitzan bizi da Peli Fernandez de Romarategi (Gasteiz, 1922). Apaiza ez bada ere, bizitza erlijioari estuki lotua izan du, tartean misiolari gisa Ekuadorren hiru hamarkadaz. Eguneroko otoitzekin batera, irudi erlijiosoan mosaikoak ere badarabiltza gaur egun esku artean, arotza baita ofizioz eta afizioz. Abertzalea sentitzen dela dio eta, ororen gaintik, euskaltzalea.

Erraza al da Gasteizen euskaraz egitea? Erraza ez, baina nik egiten dut. Eguneroko joaten naiz igerilekura eta han entzuten dut eta egiten dut. Gipuzkoarra naizen galdetzen didate. Ez, jauna, arabarra naiz. Hemen, apaizen erresidentzian, aukera gutxi daude, bakarrik Felix Placer apaizarekin egin dezaket, eta egiten dut, noski. Meza, goizero, gaztelaniaz entzun behar dut, ez daukat beste aukerarik, kantaren bat edo beste ez bada... Gustatuko litzaidake aukera gehiago izatea. Eta familian dakitenekin beti; bilobekin, beti euskaraz egiten dut. Eta irakurri ere euskaraz egiten dut tarteka; goizero erlijio liburuak irakurtzen ditut

eta nobelaren bat edo beste ere bai; Bernardo Atxagaren *Obabakoak* adibidez, hiztegia beti alboan duedala hala ere... Arantzazuko egutegia ere badut, eta egunero irakurtzen dut.

Gasteizko lehenengo ikastolan izan zinen. Gogoan dituzu eskola haiek?

Bai, oroitzapen politak ditut. Lehendabizi Posta kalean izan genuen eta gero *Zapateria* kalean; hogeita hamar bat haur izango ginen.

Pilar Landaburu izan genuen irakasle. Solidaridad de Obreros Vascos sindikatuaren –ELA sindikatua gaur egun– ekimenez jarri zuten martxan, eta hantxe izan ginen hiru bat urtez. Euskara gutxi genuen han, hala ere; gauean, eraikin berean, "Gaztetxu" izeneko programa genuen, eta han bai, dantza, musika eta beste saio batzuk izaten zituzten euskaraz. Sindikatuaren ekimenez jarri zuten martxan hori ere. Han hasitakoa, ordea, bertan behera geratu zen Francorekin; 1936ko

uztailean amaitu ziren euskal eskola hartako plan guztiak.

Ondorengo urteetan euskara irakasle bikainak izan zenituen.

Bai, primerakoak. Haurra nintzela izan nuen lehendabiziko hartu-eman euskararekin, baina benetako euskara eskola kartzelan izan nuen.

Urte eta erdi egon nintzen kartzelan eta han, tarte batez, euskara irakasle onena izan nuen, Andoni Urrestarazu *Umandi*. Denbo-

"Francorekin, 1936ko uztailean amaitu ziren Gasteizko euskal eskola hartako plan guztiak"

ra ondo aprobetxatu genuen behintzat. Kontzientziazteko ere balio izan zuen horrek. Hark eman zizkigun lehenengo gramatika eskolak; libururik ez genuen orduan, buruz ematen zigun dena eta guk gure koadernoetan jasotzen genuen.

Ikurriña bat jartzeagatik izan zinen kartzelan, ezta?

Bai, ikurrina jarri eta protesta egi-teagatik. 1947an izan zen. Fray Francisco de Vitoria domingotarraren omenez monumentu bat inauguratu zuten, Gasteizko Senda paseale-

kuan, gaur egun ere badagoena. Franco etorri zen inauguratzera eta istiluak izan ziren; ikurrina atera genuen eta erbersteratuentzat mugak zabaltzeko eskatzen zuen pankarta bat ere jarri genuen. Soldaduska egiten nenbilen garai hartan eta inauguraziora etorri nintzen; atxilotu gintuzten, sei lagun, eta urte eta erdi egin genuen kartzelan.

Politika gertutik bizi izan duzu?

Politika ez hainbeste, EAJrekin batera aritu izan naizen arren; baina gaur egungo EAJ ez da garai batekoa... Abertzalea sentitzen naiz, hori bai, baina batez ere euskaltzalea. Hori defendatzen dut.

Misiolari ere izan zinen Ekuadorren. Nolan erabaki zenuen joatea?

Jose Mari Zunzunegi Zestoako semea ezagutu nuen, eta hark animatuta joan nintzen. Misiolari laiko moduan joan nintzen, jendea laguntzeko asmoarekin. 1955. urtean joan nintzen eta Los Rios eta Manabi probintzietan aritu nintzen. Hiru hamarkada baino gehiago egin nituen han, arotz moduan lanean.

Non ikasi zenuen ofizioa?

Aurretik Arte eta Lanbide eskolan ibili nintzen, gauetan, eta han ikasi nituen hainbat kontu. Ikasitakoarekin, Ekuadorren hainbat proiektutan parte hartu nuen; hainbat azpiegitura lan egin genituen.

Euskararekin jarraitu zenuen han?

Bai, kartzelan hartutako apuntekin eta ondoren Urrestarazuren etxean ere ikasitakoekin joan nintzen Ekuadorrera eta han ere praktikatzeko aukera izan nuen. Gipuzkoa aldeko hainbat lagun izan ziren han eta eurekin euskara hobetzeko parada izan nuen.

Eta erlijioarekin zer nolako harremana izan zenuen urte haietan?

Gertutik bizi izan dut, baina inguruoengatik gehiago. Katekesi eskolatan parte hartu nuen, mezetan, baina ez da ardatza izan. Fededuna naiz, baina beste lan batzuk egin ditut, ez da lehentasuna izan; Gasteizko apaiz egoitza honetan ni naiz apaiza ez den bakarra, baina onartu egin naute egindako lanagatik kar kar.

Ekuador utzi eta Urkiolako santutegian ere izan zinen, ondoren?

Bai, Urkiolan ere lanetan ari ziren bete-betean heldu nintzenean, eta han hasi nintzen. Pentsa zelako

aldaketa! Tropikoa atzean utzi eta Urkiolako hotzetara ohitu behar nuen! Garai bateko negu haietara gainera kar kar... Urkiola beti zegoen itxita elurragatik. Baina pozik izan nintzen eta hainbat lan egin nituen; besteak beste, eraikin

nagusiko beirateak prestatzen. Jose Mari Muñoz artistak marraztu eta nik moztu eta muntatu egin nituen beirak. Han ere euskaraz aritzen noski, baina arazo batzuekin; etxeko andreari ez nion ezer ulertzen! Nik dakidana gipuzkera forma zen eta asko kostatu zitzaidan hango hizkerara ohitzea.

Eta, oraindik ere, lanean jarraitzen duzu?

Bai, tarteka eskulan batzuk egiten ditut. Orain egiten ari naizen lan-txo hau monjek eskatu didate, prestatzen ari diren festa batetarako.

Gustatzen zait tailer honetan egotea; musika entzun bitartean lasai egoten naiz kontu hauek egiten.

Atsedeen gutxi duzu, beraz.

Denbora gutxi dut aspertzeko, egia esan. Honekin amaitutakoan igerilekura joango naiz eta beste hain-

bat kontu ditut ondoren. Urkiolan hogeit urte egin eta gero Gasteizera heldu nintzen duela bost, baina oraindik tarteka gustatzen zait bertara joatea eta asteburuan horretarako aukera izango dut; larunbatean joateko asmoa dut, San Antonio eguna ospatzera eta behar duten guztian laguntzera.

"Meza goizero gaztelaniaz entzun behar dut, ez daukat beste aukerarik, kantaren bat edo beste ez bada..."

"Fededuna naiz, baina beste lan batzuk egin ditut urte hauetan; ez da lehentasuna izan"



Peli Fdz Romarategi, apaiz etxeko tailerrean. | A. AMENABAR

OIHAN TXABARRI

PUBLIZITATEAN LIZENTZIATUA



Ez dago fidatzerik

Etorkinekin ez dago fidatzerik, benetan. Begira Ahmed eta Johara. Marokoko herrixka ttipi batetik alde eginik heldu ziren hona. Lan egitera zetozela diote, zer esango dute ba. Ahmed abeltzaina ei zen, eta hemen, ahal duenean, igeltsero. Johara etxeko andre zen, eta etxeko andre hilko den arren, orain atariak garbitzen ditu ere bai.

"Haien alabek zuen hizkuntza ikasi eta ALEAko zutabegileak erdituko dituzte"

ordaindu gabe. Oraindik ez daude Gasteizko erroldan. Aitzakiaren bat jarri zidan Ahmedek, ez dut gogoratzen. Guretzat hobe, horrela ez dute Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta kobratzerik. Oliba koloreko larrua dute, eta doinu arabiar nabariak mintzo dira. Bi alaba txikiak ordea hemengo doinuz hasi dira gaztelaniaz egiten. Zapi madarikatu hura jarriko diete laster, ikusiko duzue. Ez zaitezte fio.

Benetan diotsuet: Ahmed eta Johararekin ez dago fidatzerik. Nortasun agiriak ikusi dizkiet eta izen faltsuak darabiltzate. Egiatan ez dira Ahmed eta Johara deitzen, Antonio eta Joaquina baizik. Ez sinetsi ezer, Malagatik datoz eta, ez Marokotik. Hauekin ez dago fidatzerik, iruzurrean dabilta beti. Fida zaitezte, bai, badakizue zer gertatuko den? Azkenean haien alabek zuen hizkuntza ikasi, zuen semeak ezkondu eta Arabako ALEAko zutabegileak erdituko dituzte, zutabeak gezurrez josiko dituztenak gainera. Esan dizuet ba, ez zegoela fidatzerik.

Ondo ezagutzen ditut Ahmed eta Johara, eta ez dago fidatzerik. Langileria ez-kualifikatua dira. Askotan beltzean egiten dute lan, zergarik

ITZIAR REKALDE

IPUIN KONTALARIA



Abiadura

Gustuko dut bidaiatzea. Nagoen tokitik 200 km-tik gorako distantzian dagoen beste batera joan behar badut, premiazkoa ez bada, ez dut garraioetatik arinena aukeratzen eta denetatik, ahal badut, trenak hartzen ditut; autobusak ere noizbehinka. Delako garraioan sartu eta denbora-espazioko

"Abiadura horretan, ez du behar beste fotoi jasotzen eta itsu dabil"

sasi-psikologiazko aldizkariaren testak egiten edo sekulan aukeratuko ez nuen filma ikusten. Noizbehinka, lo kuluxkaren bat, gogoetaren bat, grabitate gabeko burmuinetik hegaka.

Aurrekoan, autobusez egin nuen bidai batean, Australiako kakalardo-tigreari buruzko dokumentala ikusi nuen. Esatariaren berbetan, animaliarik azkarrena zela uste zuten biologoek, *Paratarsotomus macropalpis* arkakusoa aurkitu zuten arte. Kakalardo horrek, 1,80 luzera duen pertsona batekin konparatuko bagenu, 810 km/orduko abiadura lortzeko gaitasuna luke. Baina ibilera izugarri horretan, ez ditu behar beste fotoi jasotzen begietan eta itsu dabil. Etengabe gelditu behar da norabidea ez galtzeko. Dokumentalaren ostean ondorio hau atera nuen: nire luzera eta kakalardoaren tamaina konparatuz gero, 6-8 orduko bidaiak behar ditudala noizbehinka, ohiko arduetatik kanpo, ikusmena eta norabidea berreskuratu ahal izateko.

tartean sortzen den zulo garden horren barruan murgilduta egoten naiz, hibernatzen bezala, inongo ardurarik gabe, leihatilatik begira, erromantikoa naizen edo ez igarriko duen

ARABA EUSKARAZ ITSASEGIAREN ZINTA



SAREAN

#Baskonia

Ibon Navarro gasteiztarraren tokia Perasovic kroaziarrak hartuko du datorren denboraldian, Laboral Kutxa Baskoniaren gidaritzan. Zaleen ezagun zaharra, sarean ongi etorriak zein protestak eragin dituena. **I. ESTARRONA** @itsasoestarrona GASTEIZ

**Aimar Esnaola** @aimar_06

Ibon Navarrok aukera bat merezi zuela pentsatzen jarraitzen dut, baina Perasovic fitxaketa ona da. Gogorra, Kerejeta style. #Baskonia

**Andoni Urbistondo** @urbixxx

Zaleen babes handiak Kerejetaren hausnarketa ekarriko zuela sinetsita nengoen, baina argi geratu da ez duela konfiantza handirik etxekoekin.

**Iker** @ikerrrr

Hurrengo urtean playoff-etatik kanpo beraz. Gora Ibon Navarro!

**Mikelo** @Mikeloo15

Edonor ezta kapaz zuk ein dozuna egiteko. Kostako da zure lana berdintzea. Eskerrik asko @ibonnavarro! Handixe zara! #Baskonia

**A_ze_karakola** @A_ze_karakola

Baskoniako bufandie eitten hasitte nao... Datorren urtearte kajoien geraukoa. :(

**Escu25** @oierescu25

Egia bada irakurrietena, poztan nau Perasovic handia berriro ere etxen eukitzea @Baskonia Hala ere @ibonnavarro -k ez du honelakorik merezi

ASTEKO ARGAZKIA



Bidali gutunak / argazkiak:
Gutunak, gehienez 1.500 karaktere-koak. ALEAK eskubidea du gutunak eta argazkiak moldatu eta HIRINET-en argitaratzeko. erredakzioa@alea.eus

Gasteizko Emakumeen Etxea aldarrikatu dute hainbat ekintzaile feministek, arkeologia museo ohian. | ARABAKO EMAKUMEEN ASANBLADA

HAUTSA FEMINISMO BIHURTZEN

Hutsik eta itxita dago Gasteizko arkeologia museo ohia 2009tik; hautsezatzen, bertan zeuden lanak Bibat eraikin berrira eraman zituztenetik. Azken egunotan, ordea, Vital Kutxaren ondare honi

erabilpena ematen hasi dira Gasteizko hainbat ekintzaile feminista, sinbolikoki bada ere: pankartak jarri dituzte, bertan "Emakumeen etxea" abian jartzeko aldarrikatuz. | I. E.



ARABAKO KUADRILLAK

GASTEIZ

INGURUMENA



Dani Zuazagoitia Gasteiz Zero Zabor taldeko kidea, alde zaharreko bilketa neumatikoko edukiontzien ondoan. | A.AMENABAR

DANI ZUAZAGOITIA

GASTEIZ ZERO ZABOR Hondakinen aferak kezkatuta, hainbat alorretako lagunak elkartu dira gaia gizarteratu eta agintariak beharrezko neurriak har ditzaten eskatzera; zarama ahalik eta gehien murriztea dute helburu. **A. AMENABAR** GASTEIZ

"Herritarren konpromisoa behar dugu, baina baita azpiegitura egokiak ere"

Zaborraren auzia mahai gainean jar-tea. Hori du helburu Gasteiz Zero Zabor taldeak. Udalerriko azterlan txiki bat egin ostean, kezkatzeko moduko datuak daudela azaldu dute, eta "lanean" jartzeko garaia dela. Ikasturte hasieran Gasteizko Kuadrillan abiatutako lana lurralde osora zabaldu nahi dute.

Zaborren gaiari eman diote Arabako agintariak behar zuen garrantzia?

Alboratuta izan dute gaia nahiz eta 2006-2016 hondakinen plan bat duten Aldundian eta Udalean ere. Ekin-tza eta helburu berdinak proposatzen dituzte biek baina ez da mugimendurik egon. Hauetan aurreikus-tan zen, besteak beste, bio-hondakinekin aterata-

ko konpostarekin irtenbi-de zuzen bat geneukala zaborrarentzako, are gehi-go Gasteiz eta inguruko herriek duten nekazal izaera kontuan hartuta. Eta errealitatea da plana amaitzear dagoela eta egoera bestelakoa dela.

Egin duzuen azterketan zer ondorio atera dituzue?

Udalaren webgunean bertan ikus daiteke datu esan-

guratsu bat: %23 birzikla-tzen dugu gaur egun Gasteizen. Iaz %24 izan zen, eta bitarte horretan mantendu da azkeneko sei urteetan. Beste udalerrri batzuekin alderatuta, osobaxua da. Ezkorra da diagnosia eta jakin nahi izan dugu zein den hiriburuan dagoen giroa; horretarako hainbat hitzaldi antolatuta ditugu auzo desberdinetan

eta ikusi dugu jendeak baduela interesa gaiarekin baina ezjakintasuna handia dela. Datu gutxi ditugu eta, gainera, desitxuratuta.

Informazio argia falta da?

Gasteizen *green washing* (garbiketa berdea) delakoa bizi izan dugu eta eragin nabarmena izan du, ez udalaren aldetik bakarrik, baita hedabideen aldetik ere. Interneten bilaketa simple bat egiten baduzu hainbat informazio eta datu topatuko dituzu baina benetako datuak eskaintzen ez dutenak; birziklatutako paper kopuruaren inguruko albisteak, esate baterako, baina beste udalerriekin alderatu gabe, alegia datu hori esanguratsua den ala ez jakin gabe.

Lurraldean badira konpostaje esperientzia interesgarriak...

Badira esperientzia txikiak, batzuk Aldundiak bultzatu dituenak eta beste batzuk, handienak, tokian tokiko udaletxeek bultzatutakoak. Adibide adierazgarriena Burgukoa da; aspalditik egin dute konpostea eta erakusten du hasieratik gogoz eta ganoraz heltzen bazaio hondakinen %40 erditik kendu dezakegula. Izan ere, gogoratu behar dugu sortzen dugun zakar poltsa batetik heren bat beira, ontzi eta paperak betetzen dutela, beste heren bat bio-hondakinek eta %35 inguru errefusak, birziklatu ezin dena.

Etxean selektiboki banatu ez dena berreskuratu daiteke?

Hein batean bai, baina ez dena. Hemendik aurrera Jundizen kokatzen den bio-konpost tratamendu mekaniko-biologikoen plantatik igaro beharko da zarama Gardelegira bota aurretik. Halere, zati bat bakarrik berreskuratzen da eta bio-gonkortutako materia sor-

"Aldundiaren plana amaitzeaz da eta jarritako helburuak ez dira bete"

"Zaborraren inguruko datu gutxi ditugu eta, gainera, desitxuratuta"

tzen da, hondakin organikoetatik abiatuta; hau ez da konpostea eta ondorioz ezin da modu horretan erabili, nekazal lurretarako adibidez. Positiboa da Jundizeko tratamendu planta horretatik pasatzea, baina hobetzeko aukerarik baldin badago konpostarekin izango da, ez bestela.

Birziklatu nahi duenak baditu beharrezko azpiegiturak?

Ez, aukera hori ari gatzazio ukatzen jende askori. Alde zaharreen eta erdigunean, esate baterako, ez dago aukerarik organikoa batze-



Gasteiz Zero Zabor taldearen aurkezpen eguneko irudia. | ALEA

ko eta beste auzoetan zailtasunak daude; neumatikoa dagoen auzoetan, esaterako, organikoa batzeko aukera dagoen tokietan, errefusa batzen duen hodi beretik egiten dute bidea eta maiz kutsatu egiten da organikoa. Honekin ez dugu jendea desanimatu nahi, baina argi dagoena da eraiki ditugun azpiegitura erraldoi hauek ez dutela Europak eta Jaurlaritzak jarri dituzten helburuak betetzeko maila nahikoa bermatzen. Gogoratu, Europak 2020rako material birzikla-

garrien %50 birziklatu behar dela ezarri du eta Jaurlaritzak %70. Maila horietara heltzeko biztanleen konpromisoa behar dugu, baina baita honi erantzuten dioten azpiegiturak ere.

Zein da birziklatzeko modurik egokiena?

Hainbat sistema daude munduan zehar eta horiek mahai gainean jarri nahi ditugu. Debate horiekin hasteko hainbat hitzaldi izango dira; hurrengoa astelehenean izango da, Oihanderren, 19:00etan.

ASKARTZAN
TREBIÑU
sagardotegia

Zabalik jarraitzen dugu!
Sagardotegi eta udako menua
autobus zerbitzua eskuragarri

www.trebinu.com / kmarkinez@outlook.com / 945 24 48 52- 657 73 65 99



Artziniega giroten ari dira 1937ko Gernikako bonbardaketa simulatzeko. | AIARALDEA

Hasi da 'Gernika' filmaren grabaketa Artziniegan

1937ko giroa simulatzen ari dira herrian, eta hainbat leherketa kontrolatu egingo dituzte

ERREDAKZIOA @aiaraldea

AIARALDEA

Gernika filmaren grabaketa hasi da Artziniegan. Aurreratu zuten moduan, Aiaraaldeko herria filmean agertuko da eta asteartean pelikulako taldeak presaketak abiatu zituen. Bertan jasoko diren irudiak Gernikako bonbardaketa-ri lotuta egongo dira eta hori dela eta hasi dira zenbait kale prestatzen; auto zaharrak, hondakinak... jarri dituzte Alde Zaharreko zenbait lekutan, garaiko giroa eta bonbardaketaren ondorioak simulatzeko.

Pelikulako taldearekin batera –asko atzerritarrak dira eta ingelesez grabatzen ari dira– suhiltzaileak eta ertzainak ere hurbildu dira Artziniegara, leherketak egingo baitituzte filmazio egunetan. Antza, auto bat zartatuko dute grabaketan, besteak beste.

Aurreko egunetan filmean parte hartuko duten herritar batzuk Bilbora jo zuten, neurrira egindako jantziak izango baitituzte.

Koldo Serrak zuzenduko du filma, eta hainbat aktore famatuk parte hartuko dute, besteak beste Barbara Goenagak, Maria Valverdek, Victor Clavijok, Irene Escolarrek eta Alex Garciak.

Lau egunez grabatuko dute Koldo Serrak gidatutako pelikula

Barbara Goenaga, Alex Garcia eta beste hainbat aktore daude herrian

ELEKTRIKARIAK Electricistas

PIZTU!

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK, ETXEOAK ETA INDUSTRIALAK
BIOMUNTAILAK
SARE INFORMATIKOAK

Tel. 655 732 993 Iñigo piztusc@hotmail.com

Espainiako Txapelketarako pasea lortu du Luisa Ibarrolak

IRATI MORENO @aiaraldea

SARATXO

Igandean izan zen erloju kontrako txirrindularitzako Euskadiko txapelketa. Luisa Ibarrola Saratxoko txirrindulariak sailkapen orokorrean zein kadete mailan bigarren postua lortu zuen eta horrek Espainiako Txapelketan lehiatu ahal izateko txartela eman dio arabarrari.

Guztira 36 txirrindularik parte hartu zuten erlojupekoan: 13 kadete, 10 junior, 10 sub 23 eta 3 elite. Maialen Aramendia izan zen lehenengoa, erloju kontrako Espainiako txapelduna, hain zuzen.

CD Laudio klubak aurrera jarraituko du datorren denboraldian

IRATI MORENO @aiaraldea

AIARA

CD Laudio klubeko bazkide, guraso eta entrenatzaileek batzarra egin zuten ekainaren leian. Bertan, taldeak aurrera jarraituko duela erabaki zuten. Gainera, datorren denboraldirako izen ematea ziurtatu dute.

Ekainaren 30erako batzarra deitu dute berriz, batzorde kudeatzailea sortzeko, nahiz eta, haiek diotenez, egokiena zuzendaritza berria sortzea litzateke. 2013-2014 denboraldian eragindako zorrak jarri du zalantzan taldearen jarraipena.



Arratzua-Ubarrundiako gazteak, Euskaraz Bizi Nahi Dugu egunerako dei eginez. | ALEA

Hilaren 27an euskaldunez beteko dira Landako zelaiak

Arratzua-Ubarrundiako Gazte Asanbladak Euskaraz Bizi Nahi Dugu eguna egingo du bigarren

MIRIAN BITERI

LANDA

Bigarrenegun egingo dute ekainaren 27an Euskaraz Bizi Nahi Dugu eguna, Landan. Egun osoko egitaraua gertatu dute Arratzua-Ubarrundiako Gazte Asanbladakoek: 11:30ean,

kalejira egingo dute, eta 12:30ean, euskolinpiadak, aparkalekuan. Bertso bazkaria etorriko da jarraian, Xabi Igoa, Egoitz Iradier eta Maria Fuentes bertso-lariek. Arratsalde partean, mus txapelketa, karaokea eta kontzertuak

egingo dituzte; hain justu, Beheko Kale erromeria sound, Itziarren semeak eta Astalapo musika taldeek joko dute, 20:00etatik.

Autobusak Gasteiztik

Gazte asanbladako kide Joanes Galartzak iragarri du Gasteiztik autobusak irtengo direla. Dagoeneko salgai daude bazkari eta bidairako txartelak, hamar euroren truke, honako tokietan: Garraxi eta Aizkora tabernetan eta 660 63 07 78 edo 648 02 62 50 telefono zenbakietan. Kontzertuak amaitzean, autobusa Aranbizkarra auzoko jaietara itzuliko dela gaineratu du Galartzak.

Hiru urte pasa dira gazte asanblada sortu zenetik. Arroiaben elkartzen den gazte talde honek askotariko ekintzak antolatzen ditu urte osoan, hala nola, Duranako jaietako Gazte Eguna, hitzaldiak eta aipatutako euskararen eguna. "Lana egiteke" dagoela gogoraraziko dute horrela.

Zuia Euskaraz egingo dute gaurtik ekainaren 28ra bitartean

M.B.

ZUIA

Gorbeialdean ekintza jositako ekaina; tartean, Zuia Euskaraz dago. Gaur bertan emango diote hasiera horri, Kulkiko lagun eskutik. Urtero bezala, kirola eta kultura uzartzen dituzten euskal joko eta jolasak egingo dituzte 18:00etan, Murgia plazaan.

Zuia Euskaraz bueltan antolatutako bigarren ekimena ekainaren 19an izango da; 19:00etan, bertso-dantza poteoa deitu dute herriko plazatik hasita; eta hori amaitzean, ardo dastatzea egingo dute.

San Juan bezperan

Udari ongi etorria egingo diote hilaren 23an: 19:30ean, *Rock-eroak* izeneko umeentzako ikuskizuna dago; 20:30ean, txokolate jana; eta 22:00etan, San Juan sua. Plazan izango dira ekintza guztiak. Ekainaren 26an, berriz, hizkuntzarekin jolas egitea helburu duen *Berbapikea* egingo dute, 20:30ean, plazan.

Ekainaren 28an emango diote amaiera Zuia Euskaraz egunarekin. Eguerdian hasiko da kalejirarekin: Bea-Murgia plazatik irteten eta bidean, emanaldia eskainiko dute Zuiako kultura taldeek. Jarraian, landa bazkaria dago igerilekuan; arratsaldean, Estibar & Obietarekin dantaldia, irrintzi txapelketa eta kantaldia izango dira toki berean.

Ondategi
(Zigoitia-Araba)

GORBEIA INGURUKO ZALDIEN XX. ERAKUSTALDIA

2015
Ekainak
28

10:00 ZALDI, BEHI, ARDI ETA AHUNTZEN ERAKUSKETAREN HASIERA.
11:30 - 14:30 PUZZARRIAK
12:00 EUSKAL DANTZAK - Zigoitia OKETA dantza taldea
12:30 IKUSTALDI ETA EKINTZA UGARIAK
- OZPOJO-JAUI TXAPELKETA
- HORSEBALL ERAKUSTALDIA
- POHIAK
- HERRI KIROLAK: Urteko Alkartarlen Ligako chitaldia.
14:00 MOXAL JANA, BOILUR: ARABAKO GASTRONOMI ELKARTEAREN FEDERAZIOAK EGINDA

GOIZEAN ZEHAZ | ARTISAU ERAKUSKETA
MUSIKA ANIMAZIOA FANFARRE BATEKIN



Hilaren 22an bilera bat egingo dute, udaletxe bakoitzean, udalekuen inguruko argibideetarako. | ALEA

Udalekuetarako izen-ematea abian da Lautadan

Kultura eta kirol jarduerak izango dituzte haurrek uztailetarako antolatutako egitasmoetan

ANAKOZ AMENABAR @anamenabar
AGURAIN

Uztailaren 1etik 31era bitartean, udaleku eskaintza zabala izango dute Lautadako Kuadrilletako haurrek; astelehenetik ostiralera izango dira,

10:00etatik 13:00etara. Dagokion udaletxean izena eman beharko dute, datorren astean zehar.

Haurren artean euskara sustatzeko asmoz, ekintza ludiko eta hezitzailez osatutako udale-

kuak izango dituzte udaletxe guztietan. Adinaren arabera, taldeetan banatuko dituzte haurrak; 2005 eta 2010 urte tartean jaiotako umeentzat izango dira.

Eskaintza baino izen emate gehiago egonez gero zozketa egingo dute taldeka. Halere, argibide guztiak emateko, hilaren 22an bilera bat egingo dute udaletxe bakoitzean.

Beste udalerrietan baino lehenago hasiko dituzte Dulantzín, ekainaren 19tik uztailetaren 17ra arte, eta euskara zein ingelera tartekatuta eskainiko dituzte. Arduradunen laguntzarekin, jolasak, sormen tailerrak, kultura eta kirol jarduerak eta irteerak egingo dituzte.

Izena emateko

Burgun ekainaren 15era arte izango dute izen emateko aukera, ekainaren 16ra arte izango dute Dulantzín eta ekainaren 19ra arte Asparrena eta Agurainen.

Arabako Natur Institutuaren bilduma ikusgai da Zabalarten

A. AMENABAR

AGURAIN

Arabako Natur Institutuaren eskutik, *Natura Araban* erakusketa izango da datorren astelehena arte Zabalarte aretoan.

Natur Institutuak 25 urte bete dituela eta, urte hauetan egindako ibilbidearen hamaika dokumentu bildu dituzte erakusketarako; argazkiak, marrazkiak, mendian hartutako oharren koadernoak, edota Mario Laurinoren bilduma paleontologikoa ikus daiteke, besteak beste. Astelehenetik larunbatera, 10:00etatik 14:00etara.

Jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa aurkeztu dute Dulantzín

A. AMENABAR

DULANTZÍ

Irailean ospatuko dituzte Dulantzín jaiak, eta dagoeneko hasi dira prestakuntza lanekin. Besteak beste, jaietako egitaraua iragarriko duen kartelaren lehiaketa jarri dute abian.

Irudia egiteko edozein teknika erabili daiteke –pintura, akua-rela, ordenagailua...– eta harekin batera *Dulantziko Jaiak 2015 Aiala Gure Amaren Ohorez* leloa jarri beharko du, baita gaztelaniaz ere. Irabazleak 150 euro jasoko ditu. Argibide guztiak alegriadulantzí.com webgunean ikus daitezke.

Bertako sagardoa
Merendero gisa
Babajana, bildotsa, ...enkarguz




Iturrieta sagardotegia

Arraga auzoa /Aramaio
945 445 385 685 721 593
iturrietasagardotegia.blogspot.com



Bergantzutik abiatuta, bederatzi kilometroko ibilbidea antolatu dute, Añanako Gazteluen egunean. | ALEA

Gazteluen artetik, ibilaldia egingo dute Zanbranan

Goizean antolatu duten mendi txangoarekin batera, hainbat ekitaldi izango dira larunbatean

ANAKOZ AMENABAR @anamenabar

ZANBRANA

Inguruko ondarea babes-
tu eta ezagutzera emateko
asmoz, azken urteetan egin
duten moduan, Gazteluen
eguna ospatuko dute Zan-
branan larunbatean, hila-
ren 13an. Historia eta
mendia gustuko dutenek
aukera dute egunerako
prestatutako bederatzi

kilometroko ibilbidean
parte hartzeko.

Zanbranan Udalak
eta herriko hainbat elkar-
tek antolatuta, hamaika
ekitaldi izango dira egun
guztian zehar. Goizean
goiz, 08:00etan, aterako
dira bertatik autobusak
Bergantzura bidean erro-
meriari hasiera emateko.

Bertako elizan pregoia
irakurriko dute Gorka
Aginagalde eta Iñigo Sali-
nero aktoreek, 09:00etan,
eta ibilbideari ekingo dio-
te jarraian.

Mugarria

Lanos eta Zabalateko gaz-
teluen bidetik igaro ostean,
Nafarroako Erreinuaren

mugarrietako baten inau-
gurazioa egingo dute Nafa-
rroa Bizirik elkarteko kide
Juan Mari Celiuren esku-
tik. Txalamako txalapar-
tari taldeak giro tuta, gai-
nera, hamaiketako egin-
go dute Portillara heldu
aurretik.

Ibilaldiaren ondoren,
Zanbranan jarraituko du
festak. Sukalki jatetxearen
eskutik, herri bazkaria
izango da, herriko batu-
kada taldearekin kalejira
egin eta gero; bazkarirako
txartelak Zanbranan Julia
tabernan, igerilekuetan
eta udaletxean eros dai-
tezke aurretik 11 euroan,
edota Bergantzuko Roca
tabernan eta Portillako
Pedro Duranan.

B a z k a l o s t e a n ,
16:00etan, bolo-jokoan ari-
tzeko aukera izango dute
bisitariek eta hainbat jolas
izango dituzte haurrek.
Erreskate txakurren era-
kustaldia, Iñigo Salinero
Txaflas-en umore baka-
rrizketa eta folk kontzer-
tua ere ez dira faltako.
Herri afariarekin eta Dj
taldearen kontzertuarekin
emango diote amaiera Gaz-
teluen Egunari.

Argibide guztiak 94-33
70 14 telefonoaren bitartez
edota Zanbranan Udala-
ren webgunearen bitartez
-ayuntamientodezambra-
na.com- jaso daitezke.
Eguneko ekitaldiak pres-
tatzeko, halaber, bolunta-
rioak behar dituzte.

artepan



Maiatza eta ekaina bitartean, hiru mendi bizikleta martxa daude eskualdean. | EBC

Udaberria, natura eta kirola eskutik helduta doaz

IV Eusko Bike Challenge mendi bizikleta proba egingo dute larunbatean, Kanpezun

MIRIAN BITERI

MAEZTU

Udaberria hasi zenetik aisialdia, kirola eta natura uztartzen duten ekin-tza ugari egin izan dira Mendialdean. Apirileko azken astebukaeran eman zitzaion horri hasiera, Arraia-Maetzun egindako motorzaleen topagunea-rekin. Edizio parte-hartzaileena izan zen aurten-goia, Euskal Herritik,

Espainiatik, Frantziatik eta Belgikatik heldutako 106 partaideekin. Asteburu osoan eskualdean mila motorzale inguru elkartu zirela uste dute antolatzailleek.

Motor hotsen ondotik, Santikurutze Kanpezuko herri lasterketa heldu zen. Joan den maiatzaren 3an izan zen hori. Ume, gazte zein nagusiei zuzendutako proba honetan 200

korrikalari inguruk parte hartu zuten.

Familia giroan

Esan bezala, askotariko ekintzak dabilta egiten eskualdean; horien artean azpimarratzekoa da maiatzaren 17an, Izki parke naturalean zehar egindako ibilaldia. Korresko aisialdi lekutik irten ziren 55 bat lagun, eta bederatzik kilometro inguruko ibi-

laldi erraza egin ostean, Korres herrira itzuli ziren. Errioxar erara prestatutako patatak bazkaldu zituzten parketxean.

Egun berean, Pipaongo pagadian zehar mendi bizikleta ibilaldia izan zen. Eta maiatzaren 31n, berriz, kirol berean, Ioar Martxaren 16. edizioa izan zen Kanpezun. Bi ibilaldi izan zituzten aukeran parte hartu zuten ehun bat kirolarik: luzea, 41 kilometro eta 1.600 metroko aldea; eta motza, 26 kilometroko eta 700 metroko aldea.

Bizikleta, larunbatean

Ekintzak ez dira orain arte aipatutakoekin amaituko. Izan ere, oraingo asteburuan laugarren Eusko Bike Challenge lasterketa egingo dute eta Kanpezun. Larunbatean izango da mendi bizikletako 114 kilometro luze eta 3.832 metroko aldea duen proba. Ez da edozeinentzako lasterketa: luzeera eta aldeari, ordu kopurua 15era mugatuta dagoela gehitu behar zaio. Antolatzailleek jakinarazi dute dagoeneko agortu egin direla horretarako izen emateak.

Hori gutxi balitz, igandean, hilak 14, Ioar elkar-teak zazpigarren mendi ibilaldia antolatu du herri berean. Goizeko 08:00etan irtengo dira partaideak, herriko plazatik.

EUSKARA

Nafarroako Zuñiga herrira egingo du aurten salto Mendialdeko Euskararen Egunak

M.B.

ZUÑIGA

Urtero bezala Arabako Mendialdeko euskaldun eta euskaltzaleen topaketa antolatu dute biharko. Aurten, baina, Nafarroara egingo du topaketak salto; Zuñigan izango da festa. Horren bueltan, egitarau

zabala antolatu dute heldu, gazte eta txikientzat. 11:00etan emango diote hasiera jaiari. Azoka, puzgarriak, kale animazioa eta gaiteroak izango dira.

Eguerdian, etxeko txiki-ekiek zaldi gainean ibiltzeko aukera izango dute. Jarraian, 13:30ean, dantza-

plazan dago; eta ordu bete beranduago, ekitaldia. Aurten ere kantu bazkaria egingo dute, 15:00etan. Zuñigako tabernan eta Kanpezuko Uxerrin daude txartelak salgai; nagusienak 15 euroan, eta 12 urtetik beherakoek, 6 euroan.

Arratsaldean, 18:00etan, pilota partiduak jokatuko dira; eta 20:00etatik, Obaneukeren dantzaldia dago.

AISIALDIA

San Kiliz erromeria dute larunbatean, Lagranen

Larunbatean San Kiliz erromeria ospatuko dute Lagranen. Kantabria mendilerroan dagoen leizeraino igoko dira herrikoak, eta goian daudela, hamaketako ederra egingo dute aterpean.

Argantzungo El Molino aretoko argazki erakusketa dago ikusgai igandera arte

Argazki lehiaketako irabazleak ere jakinaraziko ditu Argantzungo ondare historikoaren eta kulturalaren alde lan egiten duen elkarteak

MIRIAN BITERI

ARGANTZUN

Argantzungo argazki zaharrek ikusi nahi dituenak El molino aretoa bisitatzea baino ez du. Igandera arte egongo dira ikusgai bertakoek utzitako 50 irudi inguru, honako ordutegian: larunbatean eta igandean, 12:30etik 14:30era eta 18:30etik 20:30era bitartean.

Bertako herritarrak eta tokiak azaltzen dira 50 urtetik gora dituzten argazkietan. Baina, horiez gain, Argantzungo ondare historikoaren eta kulturalaren alde lan egiten duen elkarteak bigarren zatitako argazki lehiaketara aurkeztutako 16 lan ere ikus daitezke.

200 euroko saria

Lehiaketari dagokionez, elkarteko kide Vicente Renedok azaldu du epaimahaia dagoeneko batu egin dela eta asteburu honetan bertan jakinaraziko direla irabazleak. Lehenak 200 euroko saria lortuko du; bigarrenak, 100; eta hirugarrenak, 50.



El Molino aretoan Argantzungo 50 argazki zahar inguru ikus daitezke. | ALEA

"Argantzungo artean askotariko tresneria jasotzea da orain asmoa"

VICENTE RENEDO
ELKARTEKO KIDE

Honakoa gaineratu du Renedok: "Erakusketa bisi-tatu dutenek ere bozkatzeko aukera izan dute; 80 bototik gora jaso ditugu dagoeneko. Boto gehien

lortzen dituen irudiak 50 euro irabaziko ditu".

Esan bezala, igandera arte egongo da zabalik argazkien erakusketa. Jarraian, bigarren bat prestatzen hasiko dira elkartekoak. Renedok horren berri eman du: "Erakusketa etnografikoa jarri nahi dugu. Argantzungo artean askotariko tresneria jasotzea da asmoa. Ez da erraza, kosta egingo zaigu, hainbat kontaktu baditugu

ere. Asmoa da uztaileko zabalitzea".

31 bazkide

Elkarte berria da Argantzungoa; bi urte baino ez ditu. Baina, dagoeneko antolatu izan ditu herriko ondarearekin eta historia-rekin lotutako hainbat erakusketa; bizpahiru urtero. Eta baita hitzaldi eta ikus-entzunezkoak ere. Gaur egun, 31 bazkide ditu esandako elkarteak.



PARRAL TABERNA

San frantzisko xabier kantoia 4, GASTEIZ

MENU BEGETARIANO ASTEAN ZEHAR

KULTUR EMANALDIAK ASTEARTERO GOSARIAK

RAZIO BEGETARIANOAK ASTEBURUETAN

Klima-aldaketaren aurrean, **NEURRIAK HARTU DITUGU**

**CO₂-AREN IGORPENAK
MURRIZTU DITUGU**



**KLIMA-ALDAKETARA
EGOKITU GARA**



Klima-aldaketaren eraginak arintzea da EAEko strategiaren helburua, eta berotegi-efektuko gasak murrizteko neurrietan inbertitu dugu.

Gainera, urratsak eman ditugu, naturaren eta gizakiaren sistemak ingurumenaren aldaketetara egokitzeko, hau da, kalte potentzialak gutxitzeko, aukerak aprobetxatzeko, etab.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

PERTSONA HELBURU



Igandean joko du En Tol Sarmiento taldeak Araba Euskaraz egunean, Gasteizen, 15.00ak aldera. | ETS

IÑIGO ETXEZARRETA

EN TOL SARMIENTOKO ABESLARIA Beraiena da Arabako ikastolen aldeko festako kanta. Musika, En Tol Sarmientorena, eta hitzak, berriz, Ekorako Dani De Ayalarenak. Arabako Errioxako produktu peto-petoa da abestia. **ARMENTIA IKASTOLA** GASTEIZ

"Agertoki gainera igotzeko irrikan gaude"

Igandean, Mendizorroztzako gunean izango dira En Tol Sarmiento (ETS) musika taldekoak. Aurtengo Araba Euskarazeko kantaz eta esku artean dituzten gaiez egin dute berba datozen lerroetan.

ETSk abesten du aurten Araba Euskarazeko kanta. Zuen zat harro egoteko modukoa izango da, ezta?

Bai. Aurreko urtean gurekin harremanetan jarri ziren eta oso berri ona izan zen guretzat. Gogo handiz hartu genuen ardura eta denboraz konposatu genuen abestia. Gainera, gure zonaldeko ikastola batek antolatzen zuenez, abestian

eskualdeko errealitatea islatzen saiatu ginen.

Piztuko dugu euskara. Arabako Errioxan are beharrezkoagoa da hori?

Aurrerapauso handiak eman dira azken urteotan, baina ez da nahikoa izan. Araba gehienez erroka handia daukagu esku artean eta pausuak eman behar dira gure hizkuntza pizteko. San Bizente ikastolako aurreko edizioaren leloa *Hauspoari eraginez* izan zen, eta oraingo honetan ildo jarraitzea erabaki zen.

Inplikazio handiagoa behar da Errioxa aldean beste eskualde batzuetan baino? Ezinbestekoa iruditzen zaizue ikastolak, Oiongoa kasu, festa bultzatzea eta euskarazko ekimenak sustatzea?

ETS taldea Ekorakoa da baina ez gara bertan bizi. Araba-

ko zein Errioxako herri ezberdinetakoak gara eta ez dugu euskaraz hitz egiten. Hala ere, taldeak euskaraz abestea erabaki zuen, zonaldean euskara bultzatzeko. Beste aldetik, inplikazio maila altuagoa eska-

tzen da zonaldeko trabak direla medio. Horren harri- ra, Oiongo San Bizente ikastolak, esaterako, lan handia egiten du euskararen normalizazioa lortze aldera.

Araba Euskarazeko kontzertu nagusietakoa izango da zuena. Dena emateko prest? Noski. Arabako Errioxakoa izan arren, azken urteotan izugarritzko arrakasta lortu dugu Araban, eta, bereziki, Gasteizen. Hortaz, jende asko espero dugu. Gainera, eguneko jaija denez, kontzertua modu berezian biziko dugu. Gure aldetik argi daukagu taldearen alderik freskoe- na eta alaitsuena eskaini- ko dugula eta publikoaren aldetik, gauza bera espero dugu. Irrikan gaude!

Urteak daramatzazue musikan eta arrakasta ere lortu duzue. Nola egin duzue gazteekiko konexioa lortzeko?

Hamar urte pasa dira dagoe- neko taldea sortu zenetik. Azken hiru urteotan Eus- kal Herri osora zabaltzea lortu dugu. Ez genuen inolaz espero horrenbeste jarraitzaile izatea. Ez daki- gu zein den lortzeko for- mula, baina beti saiatu gara gustatzen zaizkigun erritmoak jotzen. Ez gara musikari oso adituak bai- na barneko emozioak trans- mititzeko ez dugu uste beharrezkoa denik.

Uda dator. Kontzertuen garaia. Nola egiten diozue aurre gara honi? Ilusio handiz eta disko berrian lanean?

Hori da, uda badator eta horiekin batera kontzer- tuak. Pasa den urtea oso mugitua izan zen zuzene- koei begira, eta 2015ean, aldaketa txikia egongo da. Lan berria prestatzen gabil- tza eta zuzeneko gutxiago eskainiko ditugu. Ilusio handiz ari gara lanean, zer edo zer desberdina prestatzeko. Espero dugu diskoa urte amaierarako kalean egotea.

Auzoa ikasgela

Mende laurdena bete du dagoeneko Gasteizko AEK-ren euskaltegirik zaharrenak, Judimendiko Aixkiria-k. 25 urte horietako bost mugarriren albuma egin du Jose Mardones kaleko euskara eskolak ALEarentzat. **JON BASAGUREN / AEK @GasteizkoAEK GASTEIZ**



AIXKIRA AEK

OFIZIALTASUNA ALDARRIKATUZ

Euskararen ofizialtasuna eta zor zaion begirunea alaitu eta jai giroan aldarrikatzeko auzoko bazterrak musikaz blaitzen ditugu. Trikiaren laguntzarekin bizilagunen eguneroko joan-etorriak koloreztatu izan ditugu azken 25 urteetan. Gora bihotzak!

HAURTZAROTIK NAGUSITASUNERA

Zeinen gazteak ginen gure 10. urtebetetzean. Oharkabeen, adin txikikoak izatetik adin nagusikoak izatera pasa gara. 25 urte bete ditugu, mende baten laurdena! Auzoan eta Euskal Herrian euskaraz bizi nahi dugu. Aixkiria AEK-k bere aletxoa ereiten jarraituko du!



AIXKIRA AEK

EUSKARA MOKADUAK

Kontu jakina da euskaldunon goseak ez duela mugarik. Mahai baten bueltan giro aparta jartzen abilak gara. Zer hoberik euskara ikasteko mokadu goxoa eta ardo tragoa bat baino? On egin!



AIXKIRA AEK



AIXKIRA AEK

TIPI-TAPA, JUDIMENDI KOLOREZTATUZ

Korrika badatorrr... eta badoa! Zoritxarrez, 19. edizioa joan zaigu eta 20.enaren zain gaude jada. Zer nolako kolorea hartu zuen auzoak azkeneko honetan! Hura euskahaldun piloak bildu ginena. Mila esker, Judimendi!



AIXKIRA AEK

Ospakizun agenda, AEK eta IKArekin

Aixkiria euskaltegiaren urteurrena ospatzeko, ekitaldi ugari antolatu ditu AEK-k, tartean argazki erakusketa. Horrez gain, aurten Judimendiko txupinazoaren pregoia eskainiko dute, ekainaren 19an, ostirala, 19.30ean Sefarad plazan. Hurrengo egunerako, ekainak 20, AEK-ren txosnan brindisa, triki-poteoa eta kantu-bazkaria antolatu dute. Bestalde, 1990an sortutako IKA euskaltegiak ere bere 25. urteurrena ospatzeko ekintza egitarau zabala gauzatu du asteotan. Azken hitzordua Ikaperia txapelketaren finala izango da, ekainak 18, osteguna, 18.00etan The Man in the Moon tabernan.

HANKA SARTUZ... ETA BURUA ATERAZ!

Euskara eskolak, gure izanaren funtsa. Zenbat auzotar pasa diren gure ikasgeletatik, zer nolako izerdi tantak "zenizkiguten" modukoak ahoskatu ahal izateko. Baina merezi du, jakina. Euskararik onena egiten dena delako!

FRACK NPADA

fracking-aren aurkako akanpada internazionala

UZTAILA 13-19 SUBILLA-GASTEIZ

ETA, BAT-BATEAN,
EGUNA
 ALAITUKO DIZUN
 KANTATZAR HORI
 ENTZUN DUZU
 MUGIKORREAN



SONY XPERIA
 Z3 COMPACT

SONY GABEKO
 HARIK GABEKO
 ENTZUNGAILLAX
 OPARI



1000 min + 1 GB
 WIFI KALEAN
 NAHI ADINA GIGA

GUZTIA,
38'05€
 /hil
 BEZ-A BARRA

Kontratatu euskaltel.com-en | Dendetan | 1717an

euskaltel

Estatuko deial. 81 hilabete baino gehiagoko arduradunak duen Euskaltelen bezeroentzako eskaintza.



ZOKKETAK

Harpidedunentzat eskaintzak

Zozketetan parte hartzeko, bidali zure izen-abizenak eta zehaztu zer zozketan parte hartu nahi duzun:



625 231 603



erredakzioa@alea.eus

Azken zozketetako irabazleak:

Zainuri sorta: Erkuden Laskibar.

Parralen bazkaria: Leire Telletxe Kortabarria.



Birra zuzenean

Uztailak 30-31 eta abuztuak 1-2 Falerina lorategian eta Etxauri plazan ospatuko den Birra Zuzenean jaialdirako bi lote zozketatuko ditu ALEAK. Lote bakoitzaren osaera: bi edalontzi, bi garagardo eta bi liburuxka. Eman izena **ekainaren 23a** baino lehen. Ekainaren 26an jakinaraziko ditugu irabazleak.



Espeleologia irteera

Inguru Abentura-ren eskutik, ALEAK Mairuelegorretako kobazuloetara **bi espeleologia irteera** zozketatuko ditu, hamabi urtetik gorako **lau pertsonetz** osatutako bi talderentzat. Eman izena **ekainaren 23a** baino lehen. Ekainaren 26an jakinaraziko ditugu irabazleak.



Parralen bazkaria

Berriro ere, ALEAK **bi lagunentzat** menu begetarianoa zozketatuko du Gasteizko **Parral** tabernan, astean zehar bazkaltzeko. Eman izena ekainaren 12tik 23a bitartean. Ekainaren 26an jakinaraziko dugu irabazlea.



AGURAIN ETA INGURUAK

Lursagar

"Aupa kuadrilla! Plazer bat izan da aurten ere zuekin egotea, Euskadiko eskolarteko kirol jokoetan primeran pasatu genuen eta argi gelditu da zaku lasterketan garaitezinak garela! Guraso guztiei mila esker, mundialak zarete. Lursagar Herri Kirol Elkarte".



GASTEIZ

Asier Garcia

"Zorionak, Asier! Oso ongi pasa larunbatean eta ea hurrengo afarian gazta tarta goxo batekin harritzen gaituzun! Muxu handia guztion partez!".



NARBAIZA

Oskar Campo

"Zorionak, aitatxo! Mila esker bizitzari halako aita zoragarria eskaintzeagatik! Maite zaitugu. Milaka besarkada! Amatxo eta Aitzol".



GASTEIZ

Markel Rejado Fernandez

"Zure putxeritoak munduko ederrenak dira, eta zure irribarrea, zer esanik ez! Oso handia zara ya, txiki. Urte bat! Elkarrekin putz egingo dugu, ezta? Maite zaitugu. Amaren lagunak".


Mendia Optika

www.mendiaoptika.com

ARABA EUSKARAZekin LAGUN



HITZ GEZIDUNA

	Denbora, aukera	Irabazleak	Sua
	Hoben	IZENA	Makina mota
	Karta sorta		
	Pizar		
Mahai estalkia	Zimbabweko hiriburu		
DEITURA	Iel jarri		
		Oinazea	
		Eguna	
Hondarribi-ko auzoa			Akuri
Pentsuak			
Uda partea, udaldia			Urania
Emakume izena			Bokala
		Akuri	

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNA

I	V	K	A	R	V	U	V	L
U	V	E	T	V	U	D	V	K
K	A	D	E	D	O	D	A	Z
M	E	N	D	E	L	U		
J	A	I	O	M	I			
Z	H	A	R	A	R	E		
T	A	R	O	T				
B	E	K	A	T	U			
S	G	B						

SUDOKUA

5	8	3	9	4	7	2	6	1
4	1	9	6	2	5	3	7	8
7	6	2	8	3	1	5	9	4
9	3	6	5	8	2	4	1	7
1	7	4	3	6	9	8	2	5
2	5	8	7	1	4	9	3	6
8	2	1	4	7	3	6	5	9
3	4	5	1	9	6	7	8	2
6	9	7	2	5	8	1	4	3

GOITIBEHERA


5	8	3	9	4	7	2	6	1
4	1	9	6	2	5	3	7	8
7	6	2	8	3	1	5	9	4
9	3	6	5	8	2	4	1	7
1	7	4	3	6	9	8	2	5
2	5	8	7	1	4	9	3	6
8	2	1	4	7	3	6	5	9
3	4	5	1	9	6	7	8	2
6	9	7	2	5	8	1	4	3

SUDOKUA

		6	8					
1			3					4
	2			7				5
		4				8		2
	5	8				7	6	
2		1				5		
9				5				2
	8				9			6
				4	9			

Nola jokatu? 9x9-ko lauki honetako gelaxka hutsak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiekin; zenbaki bakar bat ere ez da bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, eta ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

GOITIBEHERA



Nola jokatu? Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu behar duzun hitzak. **1.** Iruraitz-Gaunako kontzejua. **2.** Ardura, axola. **3.** Irten, jalgi. **4.** Azalera unitatea. **5.** Modua. **6.** Nafarroako Bortzirietako herria. **7.** Irri. **8.** Nafarroa Behereko herria. **9.** Landa eremuko etxebizitza.



ALEA

Tiktara taldea

Gasteiz. Ostirala 12, 22:00etan, Jimmy Jazz aretoan. 'Hariak' diskoa aurkeztuko dute.

EKAINAK

12

EKAINAK

18

EUSKARAREN AGENDA

MUSIKA

Akort

Gasteiz. Asteartean, 20:30ean, Parral tabernan.

DANTZA

'Dantza plazan' saioa

Gasteiz. Ostirala 12, 20:00etan, Plaza Berrian.

BERTSOLARITZA

Bertso saioa Izar Mendiguren eta Oihane Perearekin

Laudio. Larunbata 13, 19:00etan, Galiziako zentroan.

Bertso poteoa Etxahun Lekue, Zigor Enbeita eta Fredi Paiarekin

Izarra. Larunbata 13, 20:00etan, Frontoia tabernatik abiatuta.

Okondo Euskaraz

Okondo. Larunbata 13, 09:30ean, Okondo eskolatik abiatuta. Familientzako mendi irteera.



AIARALDEA ATARIA

Araba Euskarazeko bertso saioa

Gasteiz. Igandea 14, 12:30ean, El Mineralen. Orlando Arreitunandia, Unai Bengoetxea, Iker Olabarrieta eta Asier Otamendi bertsolariekin.

Bertso erronda Izar Mendiguren eta Jagoba Apaolazarekin

Zalduondo. Igandea 14, 15:00etan, plazatik abiatuta.

HAURRAK

'Kulki' euskal jokoak

Murgia. Ostirala 12, 18:00etan, herriko plazan.

Diskojaia

Okondo. Ostirala 12, 20:00etan, Arenalde parkean.

'Naturarekin jolastu' saioa Largabistarekin

Gasteiz. Larunbata 13, 12:00etan, Elkar megadendan.

'Etxeko izozkiak' tailerra

Gasteiz. Larunbata 13, 18:00etan, Ibaiondo gizarte etxean.

'Santuak eta deabruak', haurrentzako tailerra

Gasteiz. Asteartean, 16:30ean, elizbarrutiko arte sakratuaren museoan.



TXELU ANGOITIA

'Andante', Markeliñe antzerki taldearekin, Kaldearte jaialdiaren barruan

Gasteiz. Larunbata 13, 21:00etan, kalerik kale. Markeliñe taldearekin batera, hamaika lan ikusi ahal izango

dira, igandera arte; besteak beste, Kukai, Pez Limbo, Lasala, Zanguango, edota Soul Flavasenak.

HITZALDIAK

'Zer darabilgu hondakinekin?', Dani Zuazagoitia eta Aitziber Otegiarekin

Gasteiz. Astelehenean, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

'Arabako mugimendu euskaltzaleak frankismo eta transizioan', Jon Martinez historialariarekin

Gasteiz. Asteartean, 18:30ean, Oihaneder Euskararen Etxean.

'Izan pirata', dokumentala eta hitzaldia

Gasteiz. Asteazkenean, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

'Zeliakia: ohiko bizimodua posible ote da?', Idoia Larretxi EHUko ikerlariarekin

Gasteiz. Ostegunean, 18:30ean, Oihaneder Euskararen Etxean.

BESTELAKOAK

Literatura Txokoa

Agurain. Asteazkenean, 20:00etan, Jai Alai tabernan. *Parisen bizi naiz* Koldo Izagirrerren poema liburua izango dute solasgai. Olbea elkartearen eskutik.

BESTE HITZORDU BATZUK

MUSIKA

'Musikasi' Artziniegako musika ikasleen saioa Artziniega. Ostirala 12, 18:30an.

Big Band Berri eta The Groovin Flamings

Gasteiz. Ostirala 12, 20:30etik aurrera, Hor Dago tabernan.

Pete Ross & The Sapphire, Kardiaka Hipnotika & Joni Drums

Gasteiz. Larunbata 13,

20:00etan, Ibu Hots aretoan.

Metal Joker Fest. Celtiberian, Leather Heart, Evil Killer eta Nuclear Revenge

Gasteiz. Larunbata 13, 19:00etan, Jimmy Jazz aretoan.

Viento de Locos

Izarra. Larunbata 13, 20:00etan, kultur etxean.

Lyrikan Style & Dj Funi

Laudio. Larunbata 13, 21:00etan, Drumgorri aretoan.

Osteguna Rock. Die Hard, The Riff Truckers, The Electric Alley eta beste hainbat talde

Gasteiz. Ostegunean, 17:30etik aurrera, Andra Mari Zuriaren plazan.

HITZALDIAK

'De Flandes a Álava', Jesus Muñiz arte historialariarekin

Gasteiz. Ostegunean,

19:00etan, elizbarrutiko arte sakratuaren museoan.

'Invasiones vegetales. ¿Amenaza para la biodiversidad?', Mercedes Herrerearekin

Gasteiz. Ostegunean, 19:00etan, Ataria gunean.

BESTELAKOAK

Eguzki Lorak dantza taldearen emanaldia

Lantaron. Ostirala 12, 19:30ean, kultur etxean.

Ahuntzaren eguna


Baranbio. Igandean, egun guztian zehar. Ahuntz-gazta lehiaketa eta eskulanean erakusketa, besteak beste.

Upategietara bisita

Bastida. Igandean, 12:00etatik aurrera. Bastidako ardoak ezagutzeko eguna.

Haize dantza taldea

Maeltu. Igandean, 18:00etan, kultur etxean.



"Euskarari kolorea
emanez"

EUSKARA

kolore bizia!

euskaraba.com
arabako euskararen ataria



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net